

IKASKETA AMAIERAKO DEIALDIA**(2026-27 ikasturtea)**

UPV/EHUko Ikasleen Ebaluaziorako Araudiak ikasketa amaierako azterketen inguruan (10. artikulua) xedatzen duenarekin bat etorrira, Farmazia Fakultateak honakoa ezarri du:

1.- Lehenengo matrikulakoak ez diren irakasgaietan baino ezingo da ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin. Salbuespen bakarra izango da Gradu Amaierako Lana.

2.- Oro har, ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izango dute graduako ikasketak amaitzeko gehienez ere 30 kreditu falta dutenek, ondorio hauetarako kontuan izan gabe Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak. Gainditu gabeko kredituen artean nahitaezko kanpoko praktikei dagozkienak badaude, honako egoera hauek hartuko dira kontuan:

- Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Graduako ikasleak: ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izateko, baldintza orokorra ezartzen zaie; alegia, gehienez ere 30 kreditu falta izatea ikasketak amaitzeko.
- Ingurumen Zientzietako eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako graduetako ikasleak: ikasketak amaitzeko, aipaturiko kanpoko praktikez gain, gehienez ere bi irakasgai falta dutenean eskatu ahal izango dute deialdi hau.
- Farmaziako graduako ikasleak: gradu honek kreditu gehiago ditu (300 ECTS) eta zenbait irakasgai giltza dira gidaritzapeko praktikak egiteko; ondorioz, ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izango dute, ikasketak amaitzeko, aipaturiko gidaritzapeko praktikez gain, gehienez ere bi irakasgai falta dutenean (edozein kasutan), edo hiru irakasgai falta dutenean, baldin horietako bat gutxienez bigarren lauhilekoko giltza bat denean (*Teknologia Farmazeutikoa II* edo *Farmazia Klinikoa* eta *Farmakoterapia*).

3.- Azterketak matrikularen arabera irakasgai, talde eta deialdiaren ardura daukaten irakasleek egingo dizkiete eskatzaileei.

4.- Ikasketa amaierako azterketak ebaluatzeko erabiliko den sistema azken ebaluazioa izango da.

5.- Aurreraturiko irakasgai guztien ezohiko deialdia ofizioz **uztailekoa** izango da (hortaz, GrALari dagokionez, lanaren defentsa **irailean** egin beharko da).

OHARRA: deialdi honetarako eskariak Farmazia Fakultateko ikasleen idazkaritzan eman beharko dira **2026ko irailaren 14tik 18ra**.

CONVOCATORIA FIN DE ESTUDIOS

(Curso 2026-27)

De acuerdo con lo dispuesto por la Normativa de Evaluación del Alumnado de la UPV/EHU en relación con la convocatoria Fin de Estudios (Artículo 10), la Facultad de Farmacia ha establecido que:

1.- Solo se podrá solicitar convocatoria Fin de Estudios para asignaturas que no sean de primera matrícula a excepción del Trabajo Fin de Grado.

2.- Por norma general, podrán solicitar la convocatoria Fin de Estudios los y las estudiantes de grado a quienes les falte por finalizar sus estudios un máximo de 30 créditos, sin tener en cuenta a estos efectos los correspondientes al Trabajo Fin de Grado. En el caso de que entre los créditos sin superar se encuentren los correspondientes a las prácticas obligatorias externas, se considerarán las siguientes situaciones:

- Estudiantes del Grado en Ciencia y Tecnología de los Alimentos: para poder solicitar esta convocatoria, se les mantiene la condición general de un máximo de 30 créditos para finalizar los estudios.
- Estudiantes de los grados en Ciencias Ambientales y Nutrición Humana y Dietética: podrán solicitar esta convocatoria siempre que les falte por finalizar sus estudios un máximo de dos asignaturas además de las citadas prácticas externas.
- Estudiantes del Grado en Farmacia: debido a que esta titulación tiene un mayor número de créditos (300 ECTS) y asignaturas llave para realizar las Prácticas Tuteladas, podrán solicitar esta convocatoria siempre que les reste para finalizar sus estudios, además de las mencionadas Prácticas Tuteladas, un máximo de dos asignaturas, en cualquier caso, o de tres, si entre estas se encuentre al menos una asignatura llave del segundo cuatrimestre (*Tecnología Farmacéutica II o Farmacia Clínica y Farmacoterapia*).

3.- El alumnado solicitante será examinado por el profesorado encargado de la asignatura, grupo y convocatoria que les hubiese correspondido en la matrícula.

4.- Los exámenes de fin de estudios se realizarán mediante el sistema de evaluación final.

5.- La convocatoria extraordinaria de todas las asignaturas adelantadas se realizará de oficio en la convocatoria de **julio** (en el caso del TFG, esto supone llevar a cabo la defensa en el mes de **septiembre**).

NOTA: las solicitudes de esta convocatoria serán presentadas en la Secretaría de Alumnado de la Facultad de Farmacia del **14 al 18 de septiembre de 2026**.